

# BERRIGARA

4. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, Urtarrilak 11



**Gora  
beherapenak!**




**SAN ANDRES AUTOMOBILAK**

**ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA  
1.785.000 PZTATIK AURRERA**

Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE  
Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98





**MERKEALDIAN GAUDE**

**ETORRI, BEGIRATU**

**AUKERA EDERRAK DITUZU ZAIN**

# **ARRASATE KIROLAK**

**KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT**

**ASTORE**

**NIKE**

**REEBOK**

**PONY**

**ROX**

**MITO**

**ADIDAS**

**KARHU**

**LUTHA**

**STRATOS**

**LIBERO**

**SAUCONY**

**MISTRAL**

**L.A. GEAR**

**ELLESE**

**MILLET**

**KONTZEGINO KALEA 8. ARRASATE Tfnoa: 77 12 47 / 79 46 12 Faxa: 77 0530**

# BERRIGARA

**Argitaratzaile:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

**Laguntzaile:**

Bergarako Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzio eta maketazio:**

Jon Andueza. Eburne Arenaza.

**Diseinua:**

Goio Arana

**Publizitate eta harpidetzak:**

Eburne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru.

**Kolaboratzaileak:**

Josu Oregi, Antonio Urzelai, Iñaki Arriola, Agurtzane Arriola, Mirari Alberdi, Karmen Urrutia, Silvia Sanz, Asier Madinabeitia, Imanol Arregi, Mikel Alberdi eta Xabier Larrañaga.

**Argazki laborategia:**

Pol-Pol Argazki Taldea, Ion Gurutz Landa, Armando Gallastegi, Benito Cantero eta Kiflu.

**Komikia eta marrazkiak**

Josu Okina

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

Tirada 2.000 ale

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunik.



## 11 OSTIRALA

- **Zinea:** "Regreso al futuro III", 10.30etan.
- **Erakusketa:** Udalak eta Diputazioak antolatuta, Kultur Etxean Aurrezki Kutxa Muzikazaren artxibategitik ateratako argazkien erakusketa zabalduko da.
- **Platero y tú:** Elgoibarreko Gaztetxean, 10.30etan hasita, *Platero y Tú* musika taldearen emanaldia.
- **Mushrom attack:** Soraluze-ko Gaztetxean, 10etan, Hollandatik etorritako musika taldearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Guallar, San Antonion.

## 12 LARUNBATA

- **Zinea:** "Regreso al futuro III", 5etan, 7.30etan eta 10.30etan.
- **Pilota partiduak:** Frontonian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek iksteko aukera: Ansotegi-Urra/Etxaniz-Gorostiza; Vergara II-Errasti/Ariznabarreta-Errandonea; Ansola-Unsain/Murga-Berna.

- **Antzerkia:** *Maskarada* taldearen antzezpena, Arrasateko Amaia antzokian, gaueko 10etan hasita.
- **Zer Bizio:** Elgoibarreko Gaztetxean, gaueko 10.30etan hasita, Bilboko musika taldearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

## 13 IGANDEA

- **Zinea:** "Regreso al futuro III", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.
- **Futbola:** Agorrosinen, 3.30etan hasita, preferente mailakotaldearen arteko neurketa: Bergara eta Hondarribi.
- **Plazako dantzaldia:** 6.30etan hasita, dantzaldia *Izadi* taldearen eskutik.
- **Cristal oscuro:** Elgoibarreko Gaztetxean, 7.30etan hasita, *Cristal oscuro* musika taldearen emanaldia.
- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

## 14 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Regreso al futuro III", 7.30etan.
- **Bidezaleen batzarra:** Kultur Etxean, 7.30etan.
- **Ikastaroa IMIn:** Lotus programaren ikastaroaren hasiera.
- **Goardiako farmazia:**

Mozos, San Pedron.

## 15 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzeta.

## 16 ASTEAZKENA

- **San Anton jaiak:** Arrasaldeko 4etan, txopoa eta ikurriña jasotzea. 6.30etan, kanpai iraulpena eta txikiteoa
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Musakolan (Arrasaten).

## 17 OSTEGUNA

- **San Anton jaiak:** 10etan, txapligu botatzea; 10.30etan, Anton Deunaren baselisa igoera; 12etan, Meza Nagusia Opari bedeinkapena, eta ondoren salda, lukainka eta ardoa hurbildutakoentzat.
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguinen (Arrasate)

## Aukeran...

**San Anton jaiak:**  
Asteazken arratsaldean hasi, eta igande arratsera arte.

**Antzerkia:**  
Larunbatean, Arrasaten,  
*Maskarada* taldearen antzezpena, 10etan.

**ONENA**  
TINDATEGIA

BARRENKALE 29 BERGARA

**Mujika**  
**Jantzidenda**

BARRENKALE, 1 BERGARA  
Tfnoa: 76 29 91



**Ziripot**

Bidekurutzeta, 11 Tfnoa: 76 11 41  
BERGARA

**Kiñu**

ARGAZKIDENDA

ARGAZKILARIAK

ARTEKALE 15  
Tfnoa: 76 58 05  
BERGARA



**BERRIGARA eta JARDUN**

Aste honetan iritsi da nire eskuetara *Berrigara* aldizkaria. Jaso dudan inpresioa nahiz eta ona izan, Bergara bertako euskararen falta igarri dut, txisteak aparte. Hau ez da kritika bat iradokizuna baizik. Zergatik ez duzue bertako euskaraz maizago idazten? Horrela gure zaharrek, agian, lotsa galdu eta *Berrigara* irakurtzera ausartuko lirateke, ala gazteentzako baino ez dago pentsatua *Berrigara*? Zuek agian izango duzue galdera hauentzako erantzunik.

Banuen Bergaran euskera indartze-ko, edo bere erabilera hobeto esanda, elkarte bat sortuko zenaren berri, baina lanean kanpoan ari naizenez, eta kanpoan bizi ere, ez dut aukera handirik izan

JARDUNen berri jasotzeko.

Hau da, izan ere, eskutitz hau bidaltzearen arrazoi nagusia, zuen elkarte horren berri zabalagoa izatea, alegia, zeintzu diren zuen helburuak, baliabideak, laguntzak, e.a. Baina bada beste arrazoirik ere, eta hau da Zorionak ematea, eta eskerrak ere, ideia hau izan eta gauzatu duzuelako. Ez nuke nahiko mugimendu honetatik aparte geratzerik, horregatik bidaltzen dizuet harpidetzarako datuak, eta edozein arlotan laguntzeko eskaintza ere.

**Ane Goenaga**

**“REBAJA” edo MERKEALDIA?**

Urtarrileko merkeldiak hasi, eta harrituta gelditu naiz bergarako eskaparateak ikustean. Bizpahiru denda ezik, beste guztiak “En rebajas” omen daude, ez merkealdietan. Euskaldunoi zor zaigun errespetuagatik, iruditzen zait eskaparate guztietan, euskara hutsean ez bada, gutxienez bi hizkuntzetan eman beharko luketela beherapenen berri.

**B. Aranzabal**

**HALTZARI**

FAGOR HALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO HALTZARIAK.

BOLU 24. Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA

**Aldoka  
Maldoka**

Taberna

KRUZ GALLASTEGI  
BERGARA

**Jatetxea**

AURREZ ESKATUTAKO  
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21

<b>• ERITETXEAK</b>	
Osasun etxea .....	76 10 82
Larrialdiak .....	76 12 94
Arrasateko ospitalea .....	79 53 00
<b>• GURUTZE GORRIA</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>• DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>• ANBULANTZIAK</b>	
Bergaran .....	76 13 59
Gipuzkoako anbulan. ....	45 87 44
<b>• SUHILTZAILEAK</b>	
Zubillagan .....	78 28 00
<b>• POLIZIA</b>	
Udaltzaingoa .....	76 14 69
Ertzaintza .....	76 53 40
<b>• GARRAIOAK</b>	
P.E.S.A. ....	76 16 46
Taxiak .....	76 19 50
<b>• HIRUGARREN ADINA</b>	
Mizpirualde .....	76 13 68
Aitonak .....	76 21 40
<b>• BESTELAKO ZERBITZUAK</b>	
Udaletxea .....	76 39 42
Epaitegia .....	76 14 72
Kiroldegia .....	76 56 41
Igerilekuak .....	76 20 21
Kultur Etxea .....	76 44 46
IMI .....	76 55 49



### □ Farmaziak

Urtariletik aurrera, aldatu egin da goardiako farmazien txanda. Hilabete bakoitzeko lehenengo hamabost egunetan bergarakoak egongo dira zabalik, eta bigarren hamabostaldian, berriz, medikamenturen bat behar duen edonork Arrasatera joan behar du; horretarako, gainera, Ertzantzarekin jarri behar du harremanetan.

Nahiz eta sistema hau Euskal Herriko beste Eskualde batzutan ezarrita dagoen, eztabaida haundiak sortu dira erabakiagatik. Jose Luis Elkorok Alkateak eta Jose Luis Irazabal Udaleko Ongizate Zerbitzuruak, adibidez, publikoki adierazi dute euren desadostasuna.

### □ Kotxe istripua

Astearte goizean Arrasaten gertatutako kotxe istripuan, zaurituta suertatu ziren hogeitalau urteko I.J., eta hogeitamabost urteko M.L.I. bergararrak. Arrasateko Ospitalera eraman zituzten traumatismoak sendatzeko.



Diputazioak onartu eta gero

## Azoka aurrera

Gipuzkoako Diputazioak onospena eman eta gero, aurten hasiko dira Katabiako azoka eraikitze lanak.

Proiektua Ramon Garitano arkitektuak prestatu du, 151 milioi pza.ko gastua suposatuko duelarik.

Azkenean, eta interesatuen artean inkesta egin ondoren, 28 postu egingo dira bertan, hasieran aurrikusitako 22en ordez. Horretarako,

azokaren aldamenean eraikitako den pilotalekuaren neurriak txikitu egingo dira, eta merkatuaren azalera haunditu. Bi horiez gain, Udalak probalekua eta lurrazpiko aparkalekuak egingo ditu Katabia ingurunean.

Diputazioaren dirulaguntza jaso asmoz, ordea, egitasmo osoa birmoldatu behar dago, behinbetiko proiektuaren bila.

### □ Alkartetxeari eraso

Joan den larunbat gauean, astakiloren batzuk su eman zioten Alkartetxeko ikurriña eta anagramai. Ez da lehenengo aldia, gainera, EAkoek antzeko eraso bat jasaten dutela. Ia azkena den!

### □ Pilak batu

Aurrera darrai *Mendia Bizirik*ek pilak batzeko mar txan jarritako kanpaina. Bergarako hogeitamar dendatan banatu dituzte erabilitako pilak jasotzeko kutxa bereziak, eta dirudienez harrera ona jaso dute jendearen partetik.

Aurkako postura erakutsi duena *Cegasa* enpresa izan da. Udalak kanpaina kolaboratzeko eskaria luzatu, baina uko egin diote pila horiek batzeari, euren ustez ingurugiroa neurri txikian kutsatzen dutelako. Ekologisten eritzia, ordea, guztiz aldeantzikoa da.

### □ San Anton jaiak

Txopo eta ikurriñaren jasoaerarekin, asteazkenean hasiko dira San Anton jaiak.

## Erregeen kabalgata

Arrakasta haundiz antolatu zen joan den larunbatean

Orientetik etorritako Erregeen kabalgata.

Arratsaldeko 7.30etan heldu, eta hor ikusi genituen Meltxor, Gaspar eta Baltasar Bergarako kaleetan zehar, txiki eta ez hain txikien ilusioa piztuz.

Gauean opariak edota ikatza jaso eta gero, bergararrek

Gabonetako azken jai-eguna gozatu zuten igandean.

Astelehenean, lanera bidean, ikustekoak ziren batzuren aurpegiak!



# edergai

LAMINA, MOLDURA  
ETA OLEOAK.

BIDEKURUTZETA 38  
BERGARA Tfnoa: 76 31 03



Barronkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

1990ean 456 kotxe erosi zituzten bergarrek

## Ford eta O. Kadett-a erregeak

1990. urtean, denetara 456 kotxe eta 18 motor erosi zituzten bergarrek.

Mugimendu gehien martxoan izan genuen, 61 kotxe erosi zirelarik; lasaitasunik haundiena, berriz, abuztuan, 14 auto besterik ez.

Aipa dezagun, erosteko orduan bergarrek Ford etxea aukeratu zutela lehengo postuan, 81 kasutan behintzat. Bigarren postuan Opel aurkitzen dugu (74), eta hirugarrenean Renault (50).

Modeluei dagokionean, oster, Opel Kadett-a izan dugu 1990eko erregea, 40 bergarrek aukeratu zuten eta. Zerrendaren hurrengo postuan Wolsgvagen Golfeta Ford Fiesta azaltzen zaizkigu, biak ere 33 herritarrek erosi zituztelarik.

### Hilabetez hilabete

Martxoan, maiatzean, abuztuan eta irailean, kotxerik salduena Opel Kadett-a izan zen. Otsailean, urrian



eta azaroan, Ford Fiesta izan genuen hautatuena.

Ekaina Fiesta eta Seat Malagaren hilabetea izan

genuen. Urtarrila Renault Expressarena, apirila Golfarena, eta abendua, azkenik, Peugeot 205arena.

### 1990ean salduenak

Modeluak	Markak
O. Kadett.....40	Ford.....81
F. Fiesta.....33	Opel.....74
V. Golf.....33	Renault.....50
O. Corsa.....28	Wolsgvagen.....47
P. 205.....24	Peugeot.....45
P. 309.....18	Seat.....28
F. Escort.....17	Citroen.....27
R-19.....16	Fiat.....18

### Pala txapelketa

Binakako Pala Txapelketan parte hartu nahi dutenek, urtarrilaren 18ra arte aurkituko dute zabalik izen emateko epea. Txapelketa hile honen 20an hasiko da.

### Igeriketa ikastaroa

Urtarrilaren 18tik otsailaren 14ra arte luzatuko da Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatu duen igeriketa ikastaroa. Apuntatzeko epea, astelehenean itxiko da.

Prezioei dagokionez, aipatu 18 urtetik beherakoek 4.300 pza. ordaindu beharko dutela, eta gainontzekoek 5.400. Jubilatuta eta langabetuek, berriz, 1.500 baino ez.

### Argazki erakusketa

Gaur bertan hasita, ikusgai izango duzue Kultur Etxean Udalak, eta Diputazioak antolatutako argazki erakusketa. Batu diren argazkiak, AKMko artxibotik atera dituzte.

### Lotus ikastaroa

IMI zentruaren eskutik, astelehenean hasiko da Lotus programaren ikastaroa. Interesatuek, deitu 765549ra.

# ederTU

## ALTZARIAK

BARRENKALE 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA



✓ **Ekologisten heziketa mintegia**

Joan den astean, Kultur Etxean bildu ziren inguruko talde ekologisten ordezkariak, hogeitamar lagun inguru. Hilario Manzanedo eta Iñaki Irizarren batutapean, hainbat arlo sakondu zituzten (landaretza, fauna, etab.).

Dirudienez, ez diote ikasteari ukorik egiten!



✓ **Bideozaleen batzarra**

Datorren astelehenean, hilak 14, arratsaldeko 7.30etan, bideoaren munduan interesaturik dauden guztiak Kultur Etxean egingo den batzarrera joateko aukera dute.

Helburua, bideo talde bat osatzea litzateke, hainbat ekintza aurrera eramateko.



✓ **Gerraren aurkako Komisioa**

Asteartean, bergarako talde ezberdinetako hogei ordezkari inguru elkartu ziren Kultur Etxean, Golko Pertsikoko gerraren kontrako Komisioa sortuz. Besteak beste, larunbat arratsaldean Donostian egingo den manifestaldirako autobusa prestatu, eta astearterako Euskal Herriko ikastetxeetan zabaldu den greba deialdia bultzatzea onartu zuten.

✓ **E, txo!  
Txibistora datoz**

Txibistora hurbilduko dira 18 eta 19an Txanpi, Josu, Enrike eta Gari, bertan zuzeneko LPa grabatzeko.

Helburua, gaur arte kaleratutako lau disken bilduma egitea da.

Bai ostiral eta bai larunbatean, emanaldiak gaueko 11etan hasiko dira. Sarrerak Arrano eta Ariznoan aurrez erosiz gero, 700 pzta.



**HERTZAINAK**

**ELKAR**

Fotokopiak  
Enkuadernazioa  
Jendearentzako faxa  
Plastifikazioa  
Planoen kopia.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**ZUNBELTZ**  
**Kafetegia**

S. Arrieta Enparantza  
BERGARA

**BASTEIA**

**MODA ETA LAGUNGARRIAK**

T.Aranzadi

Tfnoa: 761008

BERGARA



# 1990 urtearen koloreak

Joan berria zaigu 1990. urtea, eta mila koloretan joan ere.

Mila kolore izan ditu baita Bergarako eguneroko bizitzak. Batzuk politik, besteak ez hainbeste.

Kontua da honako honetan gorabehera politiko horien protagonista izan ditugun alderdi politikoengana hurbildu garel, euren balorazioak argitaratzeko helburuarekin.

Aldamenean dituzue, beraz, talde bakoitzak zutabe baten bildutako eritzi laburrak. Irakurri, eta mila kolore aurkituko dituzue.

Mila kolore.

Urteekin batera,  
beti aurrera!



1990. urteak eman ditu berri garra-tzak eta goxoak, azken hauek nagusitu direlarik gure ustez.

Aho goxotasuna utzi digu urtean zehar izan dugun bizitasun kulturalak, herriko taldeak protagonista izan direlarik. Benetan pozgarria JARDUN taldearen sorrera ere eta Udalak bere langileak euskaldundu eta alfabetatzeko prozesua martxan izatea. Auzoen azpiegituran eman den aurrerakada, hala nola baserrietara ura eramatea edo ia gehiengotan bideak konponduta egotea.

16 bergarar beraien droga arazoari aurre egitera ausartzea pozgarria da. Eraiki berriak edo berriztuak izan diren etxebizitzek, publikora ireki berri diren beste hainbat lokalekin batera begi bistan uzten digute herri honek izan duen bizitasuna. Gabiria etxearen eta kartzela zaharraren berriztapen lanak, sahiesbidea osaturik izatearekin garrantzitsutzat jotzen ditugu. Izan den lehortearekin ere nahiko ur izan dugu, Eibarri ere emateko beste. Bergarako UNEDen beste bi karrera ikasi ahal izatea ere pozez hartu dugu.

Industrialdea sortzearen atzerapena izan daiteke txanponaren beste aurpegia, m2agatik eskeini zitezkeen prezioekin enpresa berriak erakarri bait zitezkeen Bergarara. Penagarria ere AEKri dirulaguntzarik ez ematea, jokaera berdina izanik euskarazko *Egunkari*arekin. Tristea baina hala gertatua, Gabon jaietan bergarar presoak bisitatzeko Udalak eskaria egiteari beste alderdiek uko egitea, kartzelaturik daudenetatik hiruk hamar urte betetzen zituztelarik.

Beti ere 91.a hobeia izango den itxaropenaz hasten dugu urtea. Hala ere krisi ekonomikoak lan mailan eduki dezakeen eraginak arduratzen gaitu. Anbulategian bigarren solairua espezialitateekin martxan jartzea, azoka berria, etab. aurtengo eginkizunak izango dira.

Urtean zehar nabarmendu den demokrazia formal eta inpositiboaren aurrean gu demokrazia partehartzaile eta aske baten alde jokatzeko saiaturiko gara.

Urte Berri on!

**Bergarako Herri Batasuna**

Udalbatzarrak  
ezina  
nabarmen



Eusko Alkartasuna Udalaren eraentzan eskuhartu eta bata nahiz bestea irabazle atera herriaren alde lan egiteko asmoz eta gogoz aurkeztu zen 1987.eko Udal-hauteskundeetara.

Botoek, jakina, erabateko gehiengorik gabeko aintzindaritzan eman zioten HBri.

Hori horrela Eusko Alkartasunak bere zabalkunde-ekintzaldian aldarrikatutako jarrerari eutsi zion orduan eskainitako egitasmoak aurkeztuz, bere iritziekin bat zetozei laguntza emanez eta Udal-ekintzari buruzko bere pentsakeraren aurkakoei uko eginez.

Hori izan zen Udaleko Eraentza-Batzordean sartu izanaren eta hain zuzen ere inorekin inolako itunerik egin gabe sartu izanaren zioa.

Gero, Alkatearen agintekeriako jokabidearen ondorioz Herriogasun eta Hirigintza Batzordeetako lehendakaritzak utzi egin behar izan genituen hala ere, eta gure hautatzaileen agindua beteaz Batzorde guztietan lanean jarraitu bagenuen ere.

Udalbatzarrak onartutako egitasmoetako gehienak EAK bere ekintza-egitarauaren arauera herriarentzat onuragarri erizitakoak izan dira, eta, hori, EAK Herri Batasunaren Udal-politikarekin bat ez zetorrenarren emandako botoei esker hobetu eta ontzat eman ahal izan ziren.

Gure ustez Bergarako herriari oraingoaz oso bestelako Udalbatzar bat dagokio, oraingoaren ezina agirikoa eta nabarmena bait da.

Eusko Alkartasunak hurrengo Udal-hauteskundeetan gure herria zer izan den, zertan dagoen eta geroan zer izan behar duen oso kontutan izan ditzaneko deia egiten dio Bergarako herriari.

Etorkizunaren nolakoa bere esku bait dauka.

**Bergarako Eusko Alkartasuna**



## Tirabirak nagusi



Berrigarak egin digun eskaria bete nahirik hona hemen Bergarako Udalari buruzko zenbait lerro.

Pasa den urte honetan hainbat gai garrantzitsu izan da. Aurrekontuak direla ta nahiko eztabaida izan genuen. Alkatearen partetik joera aldaketa izan arren, bat etortzerik ez genuen izan.

Kontratazio edo pertsonal arazoak, industrialdea kontuak, Osintxuko etxebizitzak, azoka lekua eta abarrekin gauza bera gertatu zaigu.

Beraz, tirabira nagusi izan delarik ez dugu puntu askotan bat egiteko aukerarik izan, hau bera E.E.K. bakarrik ez zaiolarik gertatu.

Desberdintasunak albora utzirik, eta martxan jarri diren gauzak aipatzen jarraituz, aparkaleku ezari dagokion kezka azpimarratzekoa dugu. Talde guztiok aho batez onartzen duguna, baina konpondu gabekoa oraindik. E.E.K. zerbait aurreratu nahian proposamen bat luzatu zuen, zeina lehen aipaturiko kezka horren baitan onartua izan den.

Eta burutu ez diren puntuak aztertutik "Normas Subsidiarias" delako gaia nagusitu zaigu.


Hirigintz planeamenduaren barrenean honen garrantzitsua den irudia onartu gabe izatea akats edo hutsune nabarmena dela deritzagu; are gehiago pasa den denboraren baitan.

Aurtengo urteari begira eta Udal hauteskunde berriak izango ditugula kontutan izanik ez dago hemen azaltzeko aurrikuspen zehatzegirik.

Besterik gabe, beraz, eta bergarako herriari Urte Berri zorionsua desiatuz.

**Bergarako Euskadiko Ezkerra.**

## Gaitasunik eza



Legealdi honen hasieratik oposizioan egon da PSE, eta behin eta berriz esan dugu ez gaudela Udala gobernatzeko elkartu ziren bi taldeekin (EA eta HB) ados; izan ere ezinezkoa gertatu zaie elkarrekin gobernatzea eta hainbat huts egin ondoren utzi egin behar izan zuten.

1990eko urtealdia ere aurrerakoan antzerakoa izan da, gure ustez burugabekoa, eta partida guztiak irailaren 24an onartu baziren ere erabat neurritz kanpoak izan ziren.

Gure aurrekontu proiektuan zortzi enmienda genituen, baina irailetik abendura burutu ezin zirenez lau bakarrik aurkeztu genituen,

1. enmienda: 3. adinekoei dagokiena. Helburua: diru baliabide eskasak dituzten edadetuei oporrak subentzionatzea.

2. enmienda: Auzoei dagokiena. Basarteko plaza asfaltatu, ormajaso, argiak jarri. Bideberri pasealekua asfaltatzea, bankuak konpontzea, argiak, tratamendu fitosanitarioa.

3. a. "Union de Consumidores de Aculde" taldearentzako dirulaguntza, elkarlanerako hitzarmena.

4.a. Ariz-Ondo aldizkariarentzako 500.000 pezetatako dirulaguntza izendatzea.

Udala gobernatzen ari den taldeak atzera bota zituen lau enmiendok.

Alde positibo bat ere azpimarratuko genuke, Gizarte Ongizate Batzordearen lana eta horri eman zaion bultzada hain zuzen.

Lehentasuna beharko luketen arazok hortxe jarraitzen dute: azoka, Udaletxea berritzea, industrialdea, errepideak, etab.

Eta Udal Hauteskundearen aurretik gelditzen zaigun epea ez da askoz pozgarriagoa izango, ez bait dira aurrera eramango 90ean pentsatutakoak ere, ez dago kapazitaterik eta.

Bien bitartean guretzat gordeko dugu Bergarako Txokoan Legealdi berrirako prestatzen ari garen programa.

Begirunez.

**Bergarako PSE**

## EAJren oharra



Berrigarakoek amaitu berri den urtearen balantze politikoa eskatu zigitenean ideia polita iruditu bazitzaigun ere, azkenean gure eritzia beste une baterako gorde nahi izan dugu; egun hauetan, hain zuzen, lau urteotan Udalak egindako lanaren balorazioa sakontzen dihardugu, azterketaren emaitzekin laister triptiko bat kaleratuko dugularik.

Horixe izan da zutabe hau hutsik lagatzearen arrazoi bakarra, eta ez besterik. Gaizki ulertuak alde batera uzteko, Bergarako EAJk argi eta garbi adierazi nahi du Berrigararen alde dagoela, astekari honek lan interesgarria egiten diharduelako gure hizkuntzaren normalizaziora bidean.

Besterik gabe, eta jaio berria den Berrigarari etorkizun oparoa opatuz. Urte Berri on bergarar guztioi!

**Bergarako  
Eusko Alderdi Jertzeala**



TOSHARE

**I LEAPAINDEGI MISTOA  
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**TOKI-EDER**

**Taberna**

Pintxoak eta

eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA



**LIZAR**

**HALTZARIAK**

Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53  
BERGARA

**anezka**

7tik aurrera

beherapenak

ESPOLOIA 8 BERGARA  
Tfnoa: 76 59 25

**Egongo al da gerrarik Golko Pertsikoan?**



**Unai Aperribai**  
16 urte

Hastekotan, 15ean; bestela ez. Gerra egoten bada, gainera, denak izango dira galtzaile, bai Irak eta bai besteak.



**Beatriz Benitez**  
20 urte

Husseinek burugogor jarraitzen badu bai. Eta amerikarrek egurra emango diotela uste dut, Husseinek 'gaita' asko duelako, baina armamentu eskaxa.



**Mari Karmen Heras**  
30 urte

Bai, gerra egongo da. Amerikarrek irabaziko dutela uste dut, ez dakit, armamentu hobea dutelako edo. Dena den, ez dut asuntza oso garbi ikusten.



**Benito Sanchez**  
36 urte.

Nire zalantzak dauzkat, baina azkenean gerrari ekingo diotela uste dut. Eta denak izango dira galtzaile, Humanitatea bera, gerran hildakoak besterik ez bait dira egoten.

**CARASA**

Kotxe aseguruak

Etxebizitza aseguruak...

D. Fleming 3, Behea BERGARA  
Tfnoa: 76 15 24

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

TXAHAL, IDI, TXERRI  
BILDOTS, UNTXI  
BASERRIKO OILASKOAK

MATXIATEGI Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

**PUXKIN**

OINETAKOAK

BEHERAPENAK

D. IRALA.  
BERGARA Tfnoa: 76 21 17



Tfnoa: 76 20 61



## Lorito iraultzailea

Azkenengo gerria pasau eta handik gutxira bueltatu zan Pako herrira. Kuartelien fitxia egin, lana kostata topau eta bizimodu normala eitten hasi zanian konturatu zan bere aintzinako lagun gorri-errepublikanuak txaketa aldatu zebela eta Franco-n alde zerela.

Pakok lehengo lepotik zeukan burua eta zihero desengañauta lagun guztiakin apurtu zeban. Orduan lorito bat erosi zeban eta Marx eta Stalin-en konsignak erakusten hasi jakon.

Eta honek baita ondo ikasi be. Pakok ikusi zebanian ondo eskolautu zeukala balkoira etaratzten hasi zan. Lorituoi etzan ixildu be eitten. Dotore xamar jantzitako bat ikusten zebanian:

- Hi, fabrikako enkargaua, txarria galanta!

Dotoriago bat pasatzen zanian:

- Kapitalista alua! Eztaukak bizitzeko deretxorik! Iku-sikok bueltia datorrenian!

Abadia pasatzen zanian:  
- Ikatz-zakua! Ikatz-zakua!

Belaxe kejau zan jentia eta guarda-zibillak ordenia emon zotsen txorixorri lepua moztu, edo behintzat ezkutatzeke. Orduan Pakok bere koñatuan oilategira eruan zeban.

Lehenengo egunian, bazter batetik harrittuta han ikusten dau oillarra banan banan oilo guztiak "errepasatzen". Gero, familixako




konpromisua bete ondoren, lorituagana doa intenzifio berdiñakin. Lorituak, tente tente jarri oillarren aurrian eta esaten dotsa:

- Kontuz gero e, artobero! Ze uste dok pa, fulana horren modukua naizela? Ni hemen politikagaittik najaok, e!

*Antonio Urzelai*

## Canovasen hilketa



Canovas

Canovas, Angiolillo anarkistak hil zuen Santa Agedako Bainuetxean 1897ko abuztuaren 8an.

Antonio Canovas del Castillo Malagan jaio zen 1928an. Oso gazterik sartu zen politikan eta 1864rako Barne-Arazaetako ministrari zen. "Liberal-Conservador" alderdi eskuindararen buru, joan den mendearen bigarren

zatiko espainiar politikorik boteretsuena izan zen. 1873tik heriotze egunera arte Gobernuburu, tarteko urte banaka batzuetan salbu. Canovas izan zen 1876an Euskal Herriko Foruei azken estokada eman ziena.

Mende bukaera aldera mugimendu anarkista indartsu zegoen Penintsulan. Canovasek 1884an argitalpen eta talde anarkista guztiak legez kanpo utzi eta gogor pertsegitu zituen. Ondorengo hiru urteetan pilaka atxilotu zituen poliziak eta ehundaka garbituak izan ziren, epaiketaz zein epaiketarik gabe, Bartzelonan, batipat.

Michele Angiolillo Suitzako Lucernan jaio zen, 1870ean. Tipografoa, Londresen ari zen lanean Bartzelonako bere erkideen sarraskiaren berri jakin zuenean. Berehala bengatzea erabaki zuen. Rinaldini izeneko kazetari bat (Angiolillo) agertu zen Santa Agedara, Canovas oportetan zegoen lekura, 1897ko abuztuaren hasieran, egun batzuk igarotzera.

Canovas, eguerdiko hamabi terdietan, gelatik irten eta bazkaltzera zihoan. Jangelara joateko, jardineria ematen duen galeria bat zeharkatu behar zuen eta galeriako banku batean Angiolillok itxoin zion eserita. Hiru pistola-tiro sartu zizkion. Lehenengoa buruan, bigarrena bizkarrean, hirugarrena, lurrean zegoela. Ez zuen ihes egiteko ahaleginik egin. Poliziek atxilotu zain, geldit geratu zen bertan, kontzientzia bake handiz.

*Juan Martin Elexpuru*

**LAZKANO**  
oinetakoak

BARRENKALE 15  
BERGARA Tfnoa: 76 25 03

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Mahasterreka 23 Tfnoa: 76 18 49



**MERZERIA - LENZERIA**

D. Irala 5 Tfnoa: 76 25 69  
BERGARA

**IBARGUREN PENTSUAK**

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "  
PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

✓ **Futboleari larri**

Denboraldi makala ari da egiten preferente mailako Bergara Futbol Taldea.

Hamazortzi ihardunaldi jokatu direnean, eta joan den igandean Azkoitian 4-2 galdu ondoren, sailkapeneko azkenurreko postuan aurkitzen dugu gure taldea, 11 puntu eta 9 negatiboz.

Hiru partidu irabazi, bost berdindu eta hamar galdu egin ditu, 19 gol lortu eta 29jaso diren bitartean.

Nahiz eta duela gutxi entrenatzailez aldatu, antza denez Juan Luis Arregi elgoibarrak ez du oraindik taldearentzat konponbiderik aurkitu. Datorren igandean, Agorrosinen, aukera berria Hondarribi taldearen kontra.

✓ **Tenis ikastaroa**

Kirol Zerbitzuak antolatuta, urtarrilaren 22an hasiko da tenis ikastaroa. Astearte eta ostegunetan, Kiroldegian, 7.30etatik 8.30etara.

**Uberarrak lasaitasuna nahi du aurtengo neguan**

**Zezeagak banakakoari ezetza**

Binakako pilota txapelketa bukatu eta gero, Jose Mari Zezeaga laister hasiko den banakako txapelketarako aukeratu zuten. Uberarrak, ordea, uko egin dio bertan parte hartzeari. Erabakiaren arrazoia enpresarekin sortutako arazo ekonomikoa omen dugu, eta azken orduan gauzak aldatzen ez badira, Jose Mari askotan faltan sentitzen den lasaitasuna gozatuko du aurtengo neguan.



Banakako txapelketan behintzat, Jose Mari eta Julianek ez dute topo egingo

**Bikoteka makal**

Aurtengoan, Zezeagak Salvador Vergarekin osatu du bikotea. Itxaropenak bai, baina gauzak ez zaizkie nahi bezala ateratu. *"Klabea Bergaran jokaturako lehenengo partiduan egon zen. Bai Tolosak eta bai nik izugarrizko paliza jaso genuen. Ordutik,*

*eskuak jota gelditu zitzaizkidan, eta gainera partidu hura galdu egin genuen...".*

Kontua da ez direla finalera heldu. Dena den, Jose Mari argi dauka bere pronostikoa. *"Anoetan Retegi eta Arretxek irabaziko dutela uste dut, ondorioz hirugarren partidua jokatu beharko lukete, eta Retegi eta Arretxeren alde emango nuke...".*

**Banakakoan betikoak**

Zezeagak uko egin dion arren, banakako txapelketari buruzko eritzia ere eskatu diogu. *"Retegi ikusten dut txapela jantzita, eta arerio nagusiak Tolosa eta Galarza. Soroa, Errandonea, etab. ak paper ona egingo dute, baina oraindik ere zaila da hiruhoriek garaitzea"*

**Bergararrak triatloian**

Lan ederra burutu zuen Bergarako *Astore* triatloio taldeak Cantabriako Alto Campoon jokaturako proban.

Lau lagun joan ziren hemendik: Xabier Azkarate, Juan Balentziaga, Juan Martin Elexpuru eta Jesus Mari Alzola.

9 kilometro antxixika, 24 bizikletan eta 7 eskiatzen egin ondoren, helmugan Azkarate zazpigarren izan genuen, Alzola hamazazpigarren, Balentziaga berrogeitahirugarren eta Elexpuru berrogeitaseigarren.

Taldeakako sailkapenean, berriz, Bergarako *Astore* 3. gelditu zen. Zorionak, beraz; ez da lorpen makala!



**ZABALA**

**JATETXEA - OSTATUA**

LABEGARAITA  
Tfnoa: 76 20 07

BERGARA



**Jostailuak  
Aeromodellismoa**

Erdiko kale 19, Tfnoa: 79 17 87 ARRASATE



**E**

dozeinek ere pentsatuko duenez, ez da atzo goizekoa gaineko argazkia. Hirurogeiren bat urte ei dauzka. Garai hartan ba omen ziren herrian hiru futbol talde:

Aberri (izen gogorregia zela eta gero Aurrera izena hartuko zuen), Alkartasuna eta Izarra. Argazkiak agertzen direnak Alkartasuna taldeak dira.

Hona zeintzuk diren ezkerretik eskumara: Ramon Ibarra, Jose Igartua, Nikolas Larrañaga, Delfin Montoya, ondorengo biak ezezagunak, Alberto Lonbide, Ixidro Pote, Toribio Aranguren (Txorixa), Joxe Idarreta, Travieso? eta Raimundo Santamaria.

Orduan ere futbol-zelaia Agorrosinen zegoen eta argazkia norbaiti omenaldiren bat egin zioten egunean ateratakhoa omen da.

*Estepan Plazaola*

Argazkia: Asuntxi Idarreta



**Arrasate 79 42 22**

**Artxabaleta**



**ETXEBIZITZA**

- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkilatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alkilerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Konpondutako pisu txiki bat salgai oso modu onean. Deitu 13.15etatik 14. etara. Tfnoa: 761079.
- Pisua salgai. Tfnoa: 761487, 1etatik 3retara eta 8etatik 10etara.

- Pisua erdiamueblatua alkilatzen da. 762793, 8etatik 10etara.
- Umerik gabeko andragizonek pisu bat behar dute alkilerrean, lehenbailehen. 781704, edo 941-209883.
- Baserrira salgai Bergararik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Pisua alkilatzen da. Tfnoa: 763797. 2etatik 4etara eta 8etatik 10etara.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Pisua alokatzen da Toki-Ederren. Gaez deitu 764988 Tfno.ra.

**LANA**

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume euskalduna behar da, goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko Tfnoa: 763157.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

**DENETARIK**

- Alemaneko klase partikularrak. 765697.
- Marrazki klaseak ematen dira FP, BUP, REM eta Ingenerutzako 1. mailakoentzat. 761330.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493
- Ikasi josten zure astialdian. 762858
- 20,50 m2ko garajea alkilatzen da Burdifornen. Egin berria. 764003
- 55 m2ko lokala alkilatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

**SALDU-EROSI**

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

**Hildakoak**



**Ignazio Irigoien**

**24 urteko bergarra, aurrerantzean Berrigara astekariko publizitate arduraduna izango dugu.**




**76 03 97**

**BERROYA, E. A.**

INPRENTA

OFFSET + TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01



BERGARA

# GAMAK

## INFORMATIKA GAUZAK

### ETIKETAK ETA HAUEK DISEINATZEKO SOTWAREa

Zergatik barra-kode sistema erabili ?

1. Azkarrago irakurtzen delako
2. Akatsik ez delako egiten
3. Hizkuntza ohizkoa eta normalizatua delako

### ETIKETAK



Etiketako egiteko ideia berriak  
Autoitsaskorrek laser fotokopiagailuentzat  
eta inprimagailuentzat.

Etiketa guztiz osatuak, erdi osatuak edo  
hutsak

### DISEINATZEKO SOFTWAREa

Honekin egitura ugariko etiketak diseina  
daitezke eta barra-kode ezberdinak  
onartzen ditu, EAN 8. eta EAN 13.,  
adibidez, nazioartean normalizatuak eta  
Españako merkatal kodifikazio elkarteak  
( AECOC ) ordezkatuak.

## GAMAK

HARTZAILEA	EROSKETA DEPARTAMENDUA	
BEZEROA	LOGISTIKA, S.A.	
LODIERA	1234-ACD	
MATERIALA	PLUMILAK	
LODIERA	0.8 MM	
PIEZAK	012	
PISUA	05 GR.	
PAKETEAK	0019	